

EZKER-ESKUIKIN, KONZEPTU SOIL BEZALA (II)

EZKERRA ETA EZKER TOTALISTA


Nire ustez, ezker totalista, aislatzen denean bakarrik, bihurtzen da eskuin. Edo hobeto esateko: bihur daiteke eskuin, ez bait da eo ipso beti horixe gertatzen. Estela, ez zait iruditzen ezker totalista, besterik gabe, eskuinazkin berdintzerik dagoenik. Ezkerra ez da ezer sinplerik: bere barruan gauza ezberdin asko dago, atal eta hegal hanitz, eta denon artean osatzena ezkerra. Han dira ekintzaileak eta ideologoak, intelektual guziz kritikoa eta tekniko pragmatistak, idealistak bezalaxe desengainatuak, eta oportunistak batzuk ere bai, agian. Era berean, jomugun problema ideologikoak bezalaxe ausartu behar izaten ditu ezkerrek egunoro zeregiri apalak, ideien garbitasuna zaintzea bezain inportante da taktikaren korapiloak ondo lotzea, etab. Ezker horrek dena egiten du. Beraz, ezkerren barruan ez da tiradurarik edo tensiorik falta: hau da, ezkerren barruan "ezker" diferentek daude, ezkerren baitan jende, zeregiri eta kondizionamendu diferentek elkartzen dira-ta.

"La izquierda adopta frente a la realidad la actitud del revisionismo permanente", esaten digu Kolakowskik. Beraz, ezkerrek, ezin duke errealdadea onetsi; baina ezin duke errealdadea zeharo arbiatu, ukatu ere, mundu honetatik kanpora irten gabe (eta mundu honetatik kanpora irten duena, ez ezkerrean eta ez eskuinean dabil). Horretara, ukazioaren maila eta forma diferentek egoten dira ezkerren barruan. Ukaziorik osena, erabatekoena, ezker totalistak egingo du. Dena en, berrak pluralismo hau gabe, ez dago ezkerrik pentsatzerik. Ezker totalista ezin izan daiteke ezkerren atal bat besterik, ezkerren barruan.

Ezkerren osagarriak ez dira beti beren baitan berdinak gelditzen, aldatu egiten dira. Baina batez ere, osagarrien arteko ihardukimenak etengabe aldatuz doaz, ezkerren barneko prozesoa determinatuz. Une batetan, ideologoen garaia izan da; geroxeago, taktiko mainatsuarena; pragmatiko patxadatsuarena gero. Ezkerra alderdi edo partidu bezala nahiz mugimendu bezala ententiatu, balio du honek ("Todo partido conlleva su propia izquierda"). Ezker totalista, ezker osoaren barruan dagoen artean, ezkerren zati bezala kontsideratu eta juzgatu behar da. Hau da, hemen dadukan funtzioaren heinean; beraz, emale bezain hartzaile dela kontatu. Ezker guzieren edoertzan partizipatzen du zati bakoitzak, ezker guzia batuturik eta komunikazio bizian bait dago.

Parte totalista (jeneralean ezkerreko puntta, gehien "ideologizatua") gainontzeko ezkerren kontra bihurtzen bada, eta: 1) ezkerretik irten eta, bere esku bihurturik, "ezker totalista" huts bat aparte sortzen bada ("gauchistekin" gertatzen ari den moduan); edo-ta 2) gainontzeko ezkerre barrutik menderatu eta itotzen bada (stalinismoak egin zuen gisan), orduan bai, "ezker eskuindar" batez, edo eskuinaren jokoan egiten duen ezker batez, mintza gintzek jeneralean (ez beti, noski). Nolanahi ere, halako ezkerre autonomoa da eta, autonomo bezala juzgatu behar da. Puntu bitxi bat ez nuke hemen aipatu gabe pasatu nahi: gaurko "gauchista" asko propio eta kontzientzia osoz stalinista deklaratzeko dela. Baina orain ez dago fenomeno horren azterketara sartzerik.

Bestela, ezkerrek, nahitaezkoa du hegal totalista bat. Eta ez arrazoi praktikoenatik bakarrik, hegal radikal hau mugimenduen (edo partiduen) "motorra" bezala izan dadin. Aitzitik, arrazoi praktikoa izaten dira, hain zuzen, ezkerre gehienetan bere hegal totalista radikala freina-arazterea behartzen dutenak: endredo eta nahaste gehiegi sortu ohi bait du, arunkik. Horrela, Alderdi Komunista boltxebikiak "komunistak ezkeriarren" hegala xahutu zuen, eta proletkulturalismoa birrindu. Hegal totalista, berebat, erraz itzultzen da gainontzeko ezkerren kontra (eta oraindik ezkerren barruan egon, ala izanik irtena eta aparte jarria izan, egiten du hori): hala, "gauchisten" zeregirik inportanteena beste ezker guzirik hondatzea dirudi. Eskuindarrek pozarren ikusten dituzte holako "gauchismoak". Eta, ordainez, ezkerre berehalaxe pasatzen da, arantza batek haragian be-



zala molestatzen dion ezker totalista, desprestijiatzera eta aislatzera. Egunotan, Alderdi Komunistek, gupidarik gabeko burruka egiten diete "gauchistek".

Honek esan nahi du, ezkerren barruko iskanbila eta sesioak ez direla batere arraroak. Horiek gabeko ezkerre litzateke arraroa. (Zerekin ez den, halare, edozein burruka modu ontzat ematen).

GURE KASUA

Honelako zerbait, Euskal Herrian ere, geure begion aurrean ari zaigu gertatzen. Zenbait ezkerriar — eta nahiko modan dagoen akusazio modu bat erabiltzeko: itxuraz ezkerren monopolioa berretzat bakarrik nahi luken zenbait oso baitzepadako Herkullesen lanetan hasi zaigu. Eta, aldrebes, seguitan agertu dira, ezker hori aislatu eta ito nahi liguketanak. Bistan dago, euskal ezkerre oraindik ez dela gauza, bere barruko diferentziak eta pluralismoa modu onean eramateko. Eta askoz gutiago, diferentzia horiek probetxurik ateratzeko. Honekin ez dut esan nahi, guzak dauden bezala, beste ezer egiterik dagoenik. Baina horixe egin beste erremedioren ez badago ere, kalamidate bat da, eta horixe bakarrik esan nahi dut.

Gure ezkerre ere mila puska eta txatal eginda agiri bada, edozeinek ikusten du, Europako fenomeno jeneral bat erreproduzitzen dugula horrekin. Nabar-nabarmena da, baita ere, Europako ezkerren eta ezkerren arteko lehien eragipena gure gain. Halare, ez zait iruditzen, gure kasua, Europar ikus ditza-keguz eta lehenengotik berdintsuak diruditen horiekin, errazegi aldera daitekeenik. Europako ezkerrek aspaldikoak dira, tradizio handia dute. Hain zuzen tradizio gehiegi dutelako, mugikortasunik aski ez dutelako, "sistiman kateiatu" gelditu direlako, politik-politiki sistiman integraturik alegia, eta borobil-borobil bukatuiko ideologien mende daudelako, sortu dira ezker berriak. (Zahartzaroaren kontrakto fenomeno bat dira, Europako ezker berriak). Ezker klasikoak loak hartuta zeudelako, esnatu dira ezker berriak. Klasiko haiek, parlamentarismoaren katra-

miletan eplegaturik (Europako mendebelean) edo gobernuko buruhausteekin nekatu eta esiririk (sorkaldeko Europar), indar iraultzagilea galdu zutelako. Pragmatismo hutsetan zebilen eta jomugak ahaizten edo zabartzen zituen ezkerren kontra sortu dira ezker berriak. Klasiko haiek, parlamentarismoaren katramiletan eplegaturik (Europako mendebelean) edo gobernuko buruhausteekin nekatu eta esiririk (sorkaldeko Europar), indar iraultzagilea galdu zutelako. Pragmatismo hutsetan zebilen eta jomugak ahaizten edo zabartzen zituen ezkerren kontra sortu dira ezker berriak. Horegatik, ezker berriak nahitaez ikaragarri ideologikoak dira, eta doidoi eskaintzen ditugue programarik. Hasaratu egiten zaizkizu, gainera, zein programa duten, galdetzen badiezu: programa heinean pentsatzen ohiu izana, sistimak integratu gaituen seinalea, iruditzen bait zaie. Beraz, ideologia eskolastika fosilizatua bihurtu, helburuei guziz kreatibidade guziaz baldi, ta bere ahaizten buruz programak prestatzeko bakarrik zerbabilkien ezkerren kontraktarrean, zuzen-zuzen. Cohn-Benditek garbi azaltzen zuen hori.

Europako ezkerren barruko etendura eta burrukak, perspektiba laburretako pragmatismo mekaniko batetatik irten nahik sortu haditu, Euskal Herrian zeharo aldrebes da. Haurtzarotik irtezea da gure problema. Guk ez dugu tradizio ezkerriar astu-negirik. Ez eta Alderdi ezkerterren aparatu burokratikorik ere, zeintzuek makineria parlamentarioaren gupil artean ezkerre "mekanizatzen" dituten. Orain arte ez dugu jomugetan beste ezertan pentsatu: ez dugu, helburuak ahaizteraz, lezagitzen programarik. Guk ideologia ezkerriarra eta iraultza-zalea besterik ez dadukagu.

Orain arte gehien egin duguna, kontzientziak irartztea izan da. Printzipioak barretzeta eta zaleztasuna sortzea. Euskal "ezker berria", hots, hazaldi berria, ia ezezetik hasi bait zen, horrelaxe hasi behar izan zuten.

Baina, problema praktikoa, egunetik egunera indar gehiago dute. Ta ukaziotik baitespenera, kritikatik proposamenduetara pasa beharra dago (ik., orobat, Herriaren lekuko liburua, JAKIN 1972, or. 50-58): programak prestatu, edo hurbilak landu, ekimideen plan egin, organizazioak sortu. Eta alor bakoitza berez, egin ere: soziala, politikoa, kulturala. Hita batetan, egin dugun esperentzia apurtxoaren eta lortu ditugun medio eskasen arabera, ideologia desberetia eta jenerala programa konkretuetan hezurramitu. Epe luzetarako, baina batez ere epe laburretarako, hurbiletarako programak. Bestela ideologiak likidoaren antzekoak bait dira: zein formatako ontzitan isuri, edozein tankera har lezakete. Edo bakoitzak bere gogara interpreta lezakeen igarkizun sibilino bat bezala. Eta halaxe da: zenbait-eta hazaldi berriaren mugimenduko eginkizun konkretu gehiagorekin eta zailagorekin konfrontatu behar, are laguntza gutiago aurkitzen du ideologian. Haiek, beren iaeraren legeez berez, abstraktuegiak bait dira. Horrela buru guziez jabetu da uestea, ideologiak predikatu ordez, konkretu izan beharra dagoela. Orain "konkretu" hitzak izugarriko inportantzia hartu du: eta ideologien aurkako errezio bezala bada ere, inportantzia hori ez da inolaz ere guziz ez-ideologikoa!

Franke bidexkoa da, nolabahi ere, konkretuaren orduaren batera, alde batetik, ideologien krisia sumatzen bada. Bestetik, mugimendu ezkerriarra astiro-astiro forma konkretua hartzen ari bait da, talde bakoitzak presa amorratua du, mugimendu honek bere gustoko forma har dezan. Eta gustokak diferentek direnez gero, daduzkagun bezalako haserreak sortzen dira.

Ideologiak hil ez dira egingo, mugimendu hau nagusitu edo nekaturik etsi eta amor eman arte. Baina, bestela, pasea ote da ideologien garaia?

(Jarraitzeko)

JOXE AZURMENDI

LEZOKO I EUSKAL KULTUR-ASTEAN

Ikastolak eratua

HITZALDIK

Arratseko 8tan, Ikastolan.

- Abenduak 18: MIKEL UGALDEK, «Heziketa eta Gizartea».
- Abenduak 19, ANJEL LERTXUNDIK, «Ikastolako heziketaz».
- Abenduak 21, IMANOL LASPIUR- EK, «Gurasoen umeei buruzko joerak».

KANTA-JAIALDIA

— Abenduak 22, arratseko 9tan, Goiko Elizan.

- PELLO ETA PANTXOA
- OSKARBI
- LURDES IRIONDO
- XABIER LETE

FAGOR
edaria epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko du bereala

Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikal
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreztea
Baserril, lur-trasnak ta aber
Torsilavega'ko Porira Joan etorriak

Baserrilaren alde